

ERABAKIA, 2019KO OTSAILAREN 1EKOA, UPV/EHUko GERENTEARENA, LAN POLTSA ZABALTZEKO HAUTAKETA PROZESURAKO DEIALDIA EGITEKOA, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN (AZP) ARLOAN ALDI BATERAKO ZERBITZUAK BETETZEKO. LAN POLTSA: UNIBERTSITATE GESTIOKO ESKALA (ENPRESAKO EUD)

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak uneoro eduki behar du eskura AZPkoen zereginak betetzeko moduan dauden pertsonen zerrenda bat, bai dauden lanpostu hutsak betetzeko, harik eta lanpostu horiek arauk agintzen duten moduan bete arte, eta bai aldi baterako premiak asetzeko.

Unibertsitatean aldi baterako lana kudeatzeko eta antolatzeko tresna 2017ko uztailaren 18ko Akordioa da, lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan poltsetako kideak ordenatzeari buruzkoa (2018ko maiatzaren 16ko EHAA, 93. zk.),

Akordio hori aplikatuz, administrazioak dauden poltsak zabaltzea behar du lanerako moduan dauden izangaien kopurua ez denean nahikoa aurreikusten diren premiei erantzuteko. Horretarako, behar diren aldi baterako hautaketa deialdiak egingo ditu.

Hori dela eta, deialdi honen helburua da B titulazio taldeko pertsonak hautatzea Unibertsitate gestioko eskalan – eskatutako titulazioa: Erizaintzan Diplomatu edo Gradua eta honez gain, laneko erizaintzaren espezialitatearekin edo Enpresa erizaintzan diplomatu- sor litezkeen premiak betetzeko.

Gerenteari eskuordetu zaio erabaki hau emateko eskumena, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia dela bide (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia, 2017ko otsailaren 3ko EHAA). Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, gerenteak honako hau

ERABAKI DU:

Lehen artikulua.- Deialdia egitea Unibertsitate Gestioko Eskalako (Enpresako EUD) lan poltsa zabaltzeko hautaketa prozesurako, erabaki honen I. eranskinean jasotako oinarrien arabera

Lan poltsa honen bidez beteko diren eginkizunak eta lanpostuak B titulazio taldeko Unibertsitate Gestioko eskalakoak izango dira: Erizaintzan Diplomatu edo Gradua eta honez gain, laneko erizaintzaren espezialitatearekin edo Enpresa erizaintzan diplomatu izatea eskatzen dutenak.

Prozesu honetan hautatutako pertsonak hiru campusetako edozeinetan bete ahal izango dituzte zerbitzuak.

Bigarren artikulua.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta beraren kontra aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke gerenteari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke

zuzenean administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean. Erabakia hedabideetan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen epe biak

Leioa, 2019ko otsailaren 1a

Miren Lorea Bilbao Arteché
UPV/EHU-KO GERENTEA

